

**Proiektu teknikoa baloratzeko irizpideak:**

A) ESKATZAILEAK KONTZILIAZIOAREKIN DUEN HARREMANA ETA KONPROMISOA, ETA PROIEKTUA HASTEKO MOTIBAZIOA (GEHIENEZ 10 PUNTU)

A.1. Erakunde edo pertsona autonomo kontratatzaileak kontziliazioaren arloan izandako ibilbidearen laburpena. Esperientzia eta ibilbidea. (Gehienez 2,5 puntu).

A.2. Eskatzailearen posizionamendua eta motibazioa proiektua gauzatzeko. Proiektua abian jartzeko arrazoi zehatzak. (Gehienez 2,5 puntu).

A.3. Diagnostikoa eta plana egiteak izan dezakeen barne- eta kanpo-inpaktuaren aurreikuspena. (Gehienez 2,5 puntu).

A.4. Erakundeak edo mikroenpresak proiektuarekiko duen konpromiso publikoa. Eskatzaileak proiektua aurrera eramateko asmoaren berri eman die langileei. (Gehienez 2,5 puntu).

B) DIAGNOSTIKOAREN FASEAN GAUZATUTAKO PRESTAKUNTZA, ZUZENDARITZARENTZAKO ETA PLANTILLARENTZAKO KONTZILIAZIO ERANTZUKIDEARI ETA KONTZILIAZIO-NEURRIEI BURUZKOA. (Gehienez 10 puntu)

B.1. Aurreikusitako prestakuntza-planaren azalpena; helburuak, datak, hartzaileak. (Gehienez 2 puntu)

B.2. Prestakuntza horretan kontziliazio erantzukidearen arloko prestakuntzan zuzendaritzari eta langileei helaraziko zaizkien ideia nagusiak. (Gehienez 2 puntu)

B.3. Erakundeari prestakuntza nola eskainiko zaion azaltzen duen azalpen arrazoitua: formatua (aurrez aurrekoa/online), metodologia (elkarrizketak, world kafea, prestakuntza-tailerra, hitzaldia, bideoak), aurreikusitako saioen kopurua eta egingo diren prestakuntza-taldeen kopurua. (Gehienez 2 puntu).

B.4. Kontziliazio erantzukideari buruzko aurrez aurreko prestakuntza-saio espezifikokoak sartzea, gutxienez 2 ordukoak, gerentziarentzat eta erakundeko pertsonen arduradunentzat. (Gehienez 2 puntu).

B.5. Kontziliazio erantzukideari buruzko aurrez aurreko prestakuntza-saioak sartzea langileentzat, gutxienez 2 ordukoak. (Gehienez 1 puntu)

B.6. Kontziliazio erantzukideari eta kontziliazio-neurriei buruzko aurkezpen bat egitea langile guztiei bidaltzeko. (Gehienez 1 puntu).

C) PROIEKTUA ESKATZAILEAREN EZAUGARRI ETA BEHARRETARA EGOKITZEA (GEHIENEZ 25 PUNTU)

C.1. Proiektuaren laburpen orokorra (diagnostikoa eta plana). Honako hauek zehaztu behar dira: proiektua osatzen duten faseak, fase bakoitzeko mugarrak, fase bakoitzerako proposatzen diren lan-saioen kopurua eta fase bakoitza burutzeko aldia. Proiektuaren bi osagaiak (diagnostikoa eta plana) nola uztartzen diren zehaztu behar da. (Gehienez 5 puntu).

C.2. Enpresa kontratatzailearentzat bereziki planteatutako proiektu motaren azalpen arrazoitua. Lan-proposamena erakundearen ezaugarrietara egokitzearen justifikazioa (tamaina, sektorea, marra gorriak, Zuzendaritzaren beharrak, produkzio-erritmoak, egungo erronkak, kontziliazioarekin lotutako zailtasunak, lan-giroa...) eta langileena (adinaren eta sexuaren arabera profila, esperientzia, lanpostu motak...). (Gehienez 10 puntu)

C.3. Proiektuaren dinamizazioa: talde eragilea. Proiektuaren talde eragile gisa jardungo duen taldearen azalpena. Fase bakoitzean aurreikusitako osaera eta funtzioak. Kontuan edukiko da taldean zuzendaritzako kideak, sindikatuen ordezkariak eta plantillako langileak dauden. (Gehienez 2,5 puntu)

C.4. Proiektuan inplikaturiko diren eragileen eta haiek proiektuaren fase bakoitzean inplikatuzko erabiliko diren formulen azalpena. (Gehienez 2,5 puntu).

C.5. Proiektua entitatearen politikan integratzeko formulak (Gehienez 2,5 puntu).

C.6. Doikuntza ekonomikoa. Apartatu honetan, proiektuaren kostua kalkulatzeko garaian kontuan hartu diren irizpide kuantitatiboak baloratuko dira (profil profesionalak, aurreikusitako lanorduen kopurua eta kostua, aurrekontuan sartutako saioak fase bakoitzean, etab.) (Gehienez 2,5 puntu).

D) DIAGNOSTIKOA (GEHIENEZ 20 PUNTU)

D.1. Diagnostikoarekin lortu nahi diren helburuak. (Gehienez 3 puntu).

D.2. Diagnostikoan aztertuko diren esparruak/alderdiak. Agindu honen 4.4 oinarrian zehaztutako guztiak sartzea baloratuko da. (Gehienez 5 puntu).

D.3. Entitatearen diagnostikoa egiteko behar den informazioa lortzeko eta egiaztatzeko aurreikusitako metodologia. Entitateari eskatuko zaion informazioa eta hori antolatzeko erabiliko diren tresnak. (Gehienez 4 puntu).

D.4. Diagnostikoan partaidetza-dinamikak sartzea, langileen beharrei buruzko informazioa lortzeko. (Gehienez 2 puntu).

D.5. Plantillako kideek beren beharrak zein diren komunikatzeko parte hartu dezaten laguntzeko tresnak aplikatzea. (Gehienez 4 puntu).

- Kontziliazio-beharrei buruzko online-galdetegi bat emango zaie langile guztiei (puntu 1)
- Diagnostikoan irauten duen artean, parte hartzeko gune irekiak eskainiko ditu (puntu 1)
- Langile guztiei irekitako talde-dinamikak, informazio kualitatiboa biltzeko. (2 puntu). Talde-dinamikak plantillako lanpostu mota desberdinetako ordezkarien kopuru jakin batera mugatzen badira informazio kualitatiboa biltzeko, apartatu honetan puntu 1 emango da.

D.6. Diagnostikoaren emaitzak langileei nola zabalduko zaizkien azaltzea. (Gehienez 2 puntu)

E) KONTZILIAZIORAKO EKINTZA-PLANA PRESTATZEA (20 PUNTU GEHIENEZ)

E.1. Plana egiteko erabiliko den metodologia. Nola hautatu erronkak eta beharrak, nola ezarri helburuak, nola zehaztu eta lehenetsi horiek lortzeko ekintza-neurriak. (Gehienez 5 puntu).

E.2. Planean sartuko diren helburuak eta neurriak zehazteko, hautatzeko eta lehenesteko proposatutako irizpideak eta eragileak. Langileek helburuak eta neurriak hautatzean eta haiei lehenetasuna ematean duten parte-hartzea baloratuko da. (Gehienez 5 puntu).

E.3. Plana sindikatuen ordezkarezekin eta plantillarekin alderatzeko formulak eta uneak egotea. (Gehienez 5 puntu). Aukerak:

- Kontrastea talde eragilean bakarrik: puntu 1
- Kontrastea talde eragilearekin + plantillako ordezkarezekin sindikalarekin: 2 puntu.
- Kontrastea Talde Eragilearekin + ordezkarezekin sindikalarekin + plantillarekin (ekarpen zuzenak egiteko aukerarekin): 5 puntu

E.4. Planaren iraupena. Egutegi-proposamenaren justifikazioa. (Gehienez 5 puntu).

F) KONTZILIAZIOAREN ARLOKO EKINTZA-PLANA ABIAN JARTZEKO ETA HAREN JARRAIPENA EGITEKO TRESNAK (GEHIENEZ 15 PUNTU)

F.1. Planaren neurrien ezarpena eta jarraipena bermatuko duen kontrol-organo bat egon dadin planteatzea. Entitatearen kudeaketa-organoetan sartzea baloratuko da. (Gehienez 5 puntu).

F.2. Planaren jarraipenerako formulak. Neurrien aplikazioaren jarraipena egiteko eta planeko helburuak ebaluatzeko eta berraztertzeko entitateari emango zaizkion tresnak. Sar litezkeen adierazle moten proposamena. (Gehienez 5 puntu).

F.3. Entitateko eragileei planaren berri emateko metodologia. Planaren berri barnean (plantilla) zein kanpoan (bezeroak, web-orria...) zabaltzea baloratuko da. (Gehienez 5 puntu).